


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 igo ziren 2008ko maiatzean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko maiatza, 2007ko maiatzarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak % 7,3 gehitu ziren

2008ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta maiatzeko urte arteko tasa %7,3ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza maiatzako urte artekoa da

2008ko maiatzean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, berriz, %0,3 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean ez zen aldaketarik izan Eraikuntzan eta %1,2 igo ziren Obra Zibileko lehengaien kostuak. Urte arteko bilakaerak antzekoagoak izan zituzten azpisektore biek: Eraikuntzako lehengaien kostuak %7,4 hazi ziren, eta Obra Zibilekoak, aldiz, %8,5.

Maiatzean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: Metalurgia (%4,2) eta Petrolio fintzea (%7,1). Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten Ez-metalezko meak (%-1,3) Material elektrikoa (%-0,7) eta Energia elektrikoa eta gasak (%-0,6),

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Ez-metalezko meak (%15,1), Energia elektrikoa eta gasa (%14,1), Petrolio fintzea (%13,7) eta Ura (%11,4). Bestalde, urteko arteko prezioetan (2008ko maiatza, 2007ko maiatzaren aldean), igoera txikiagoak izan zituzten Material elektronikoa (%0,8), Makineria (%2,2), Metalezko gaiak (%2,4) eta Ez-metalezko industria (%2,5).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2008ko maiatza.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	115,9	0,2	7,3	5,4
ERAIKINAK	115,3	0,0	7,2	5,1
OBRA ZIBILA	118,1	0,9	7,9	6,4
LEHENGAIEN KOSTUA	115,8	0,3	7,6	5,1
ERAIKINAK	115,0	0,0	7,4	4,8
OBRA ZIBILA	118,6	1,2	8,5	6,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es